



GIZARTE ZERBITZUEK EGITEN DITUZTEN BANAKAKO ETA FAMILIAKO ERROLDATZE-EGIAZTAGIRIEN ESKABIDEEN GAINEKO IRIZPIDEA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2015eko urriaren 5ean [...] Udalak helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Eskaera idazkian honakoa adierazten da:

“Udalei udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien Estatistika Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumen Koordinazioko zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpenaren (2015eko martxoaren 24ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen) 8. artikulua biztanleen erroldako datu pertsonalak lagatzeari buruz xedatzen duena ikusita, kontsulta bat egin beharrean gaude Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, beheko galderei buruzko informazioa eskatzeko:

- Gure Udala zerbitzu mankomunitate bateko kide da, eta mankomunitateak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkio udalari, eta bertan gizarte langile bat dago. Kontua da jakin nahi dugula ea ondo ezkontzen den Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua diogenarekin (hau da, “udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei ...”) gizarte langileak, interesdunaren edo interesdunen alde aurreko adostasunik gabe, banakako errolda-egiaztagiriak (pertsona bakarrari buruzkoak) eta familiako errolda-egiaztagiriak (etxebizitza berean inskribatutako pertsona guztiei buruzkoa) eskatzea”.

[...] Udalak bidali zuen idazkiarekin batera Udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoaren gaineko Lehendakaritza Ministerioaren 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena ere heldu zen, eta errolda datuen lagapena arautzen duen 8. artikuluko hainbat paragrafo azpimarratuta zeuzkan.

Irizpen eskabideak azalpen gutxi zituenenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak informazio gehiago eskatu zuen, hau da, ea errolda-egiaztagirien eskabideetan zein arrazoi agertzen ziren.

Informazio eskaera horri erantzun egin zioten, eta 2015eko urriaren 22an udaleko idazkariaren mezu elektroniko bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Mezuarekin batera gizarte langileek sinatutako idazki bat ere aurkeztu zuten, beraiek direlako erroldako datuak eskatzen dituztenak. Hona idazkiak zioena:

“2015eko urriaren 13an idazki bat jaso genuen, eta bertan informazio gehiago eskatu zeniguten [...]ko gizarte langileek errolda-egiaztagiriak eskatzeko zuten aukerari buruz. Horri buruz zera adierazi behar dugu:



Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 26. artikuluko honakoa xedatzen du:

3. artikuluko 2. idatz-zatiak honakoa dio: “Herri-administrazioek, beren arteko harremanetan, lankidetzeta eta elkarren laguntza dute printzipio, eta, beren jardunean, eragimena eta herritarrekiko zerbitzua dituzte irizpide”.

35. artikuluko f) letrak zera dio: “Herritarrek ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk” (adibidez, erroldatzeak).

Gure eguneroko lana egiteko eta prestazio, zerbitzu eta baliabide eskabide gehienak izapidetzeko, gure lan eremuko udalerrietako pertsonen erroldatze-egiaztagiriak behar izaten dira.

Gainera, askotan beste erakunde batzuk ere, esate baterako, Hezkuntzak, Osakidetzak, Ertzaintzak eta beste udal batzuek errolda bidez bakarrik jakin daitekeen udalerrri hauetako pertsonen buruzko informazioa eskatzen dute”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea ondo ezkontzen den oinarritzko eskubidearekin Biztanleen Udal Erroldako datuak lagatzea, baldin eta eskatzaileak udalaren zerbitzu mankomunitateko gizarte langileak badira eta banakako eta familiako errolda-egiaztagiria eskatzen badituzte.

Kontsultak aipatzen duen datu-tratamendua datu-lagatzea edo datu-komunikazio bat da, eta Datu Pertsonalak Babesteko buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikuluan dago horren definizioa: “interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”.

Datu-lagatzearen erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago xedatuta, eta 1. idatz-zatiak dio arau orokorra dela horretarako ukituaren adostasuna behar dela: “*Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da*”.



Nahiz eta arau orokorrak esan adostasuna beharrezkoa dela, arauak salbuespenak ere baditu, eta 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude jasota. Aipatzekoa da a) idatz-zatikoa: *“Lege batek baimentzen badu lagapena”*.

Biztanleen Udal Erroldari dagokionez, datu lagatzea gaitzen duen legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea da. Hona 16.3 artikulua dioena:

“Erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko interesdunaren adostasunik gabe, datu horiek nahitaezkoak izan behar dira administrazio horiek euren eskumenez baliatu ahal izateko, eta bakar-bakarrik lagako zaizkie helbidearen edo egoitzaren gaineko datuak ezinbestekoak badira. Datu horiek sekretu estatistikopean dauden estatistika ofizialak egiteko ere erabili ahal izango dira, beti ere Funtzio estatistiko publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta arlo honetan eskumena duten autonomia erkidegoetako estatistikari buruzko legeetan xedatutakoa kontuan hartuta”.

Lege manu horri heldu dio [...] Udalak lehenengoko kontsulta idazkian. Baina, informazio gehiago emateko bidali zuten idazkian gizarte langileek 30/1992 Legearen 35 f) artikulua jasotzen duen beste eskubide bat aipatzen dute: datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea, hain zuzen ere.

Gure ustez, ez dira gauza bera, eta bata kasu batzuei buruzkoa da eta bestea beste batzuei buruzkoa. Beraz, esan dezakegu kasuak asko direnez, kontsulta egin duen administrazioak ebatzi beharko duela noiz den zilegi eta noiz ez datuak lagatzea, eta, horretarako, orain azalduko ditugun irizpideak hartu beharko ditu kontuan.

II

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua da ukituaren adostasunik gabe ukituaren erroldako datuak lagatzea gaitzen duen titulua, baina betekizun bikoitz bat ere ezartzen du:

Batetik, datu-lagatzailea eta datu-hartzailea biak izan behar dira administrazio publikoak; eta, bestetik, datuen eskabidearen oinarrian berezko eskumen bat egon behar da, eta helbidearen datua garrantzitsua izan behar da eskumenerako.

Udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoan gaineko Lehendakaritza Ministerioaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpenak lege gaikuntza horixe aipatzen du, hain zuzen ere, 8 a) artikuluan, eta horrek gogorarazten digu Datuak Babesteko Espainiako Agentziak TAOLen 16.3 artikulua gainean egiten duen interpretazio murriztailea; eta, gainera, azpimarratzen du eskatzen den informazioak garrantzitsua izan beharko duela administrazio eskatzaileak bere eskumenak gauzatu ditzan; eta bakarrik helbidea edo egoitza garrantzitsuak diren gaietarako.

Horrekin lotuta, Udalak ez ditu onartu behar besterik gabe, eskumen bat gauzatzeko direla dioten eskabideak, eskabide horiek ez daudelako behar bezala arrazoituta; eta, beraz, eskatu beharko du eskabideetan zehatz-mehatz adieraz dezatela zein den hirugarren baten egoitza edo helbidea behar duen eskumena. Administrazio eskatzaileek eskumen asko aipatu ditzaketenez, kasuz kasu aztertu beharko da datu lagatzea zilegi den ala ez.

Puntu honetan ezin dugu aipatu gabe utzi gizarte langileek, eurek sinatuta bidali zuten informazioa zabaltzeko idazkiaren azken paragrafoan aipatzen dena:



“Gainera, askotan beste erakunde batzuk ere, esate baterako, Hezkuntzak, Osakidetzak, Ertzaintzak eta beste udal batzuk errolda bidez bakarrik jakin daitekeen udalerri hauetako pertsonen buruzko informazioa eskatzen dute”.

Gure ustez, halakoetan, erroldako datuen eskaeren hartzailerak Udala izan beharko da eta ez gizarte zerbitzuen mankomunitatea, idazkia ikusita, bestela ematen duelako. Kontuan hartu behar da udala dela erroldako fitxategiaren titularra, eta, udalak baino ezin duela fitxategia atzitu ukituaren adostasunik gabe, nahiz eta jakin datu horiek beste administrazio batzuetako fitxategietan ere egon daitezkeela jasota. Eta horretaz gain, erroldako informazioa behar duen administrazioak berak egin beharko du eskabidea (idazkiko adibideak hartuta: Hezkuntzak, Osakidetzak, Ertzaintzak eta beste udal batzuek...), eta ez gizarte langileek.

III

Bestalde, informazioa zabaltzeko idazkian aipatzen den datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideari buruz, esan behar da egia dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikulua honako eskubidea bermatzen diela herritarrei: *“Ez dute aurkeztu beharrik kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk”*

Herritarrek Zerbitzu Publikoetarako Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak zabaltu egin zuen eskubide hori 6.2 b) artikuluan:

“2. Horrez gain, herritarrek, administrazio-jardueran bitarteko elektronikoak baliatzeari dagokionez, honako eskubide hauek dituzte, betiere lege honek ezarritakoaren arabera erabiltzeko:

...

b) Herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoak baliatzearen informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edota datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak besterik adierazi ezean. Nolanahi ere, herritarren eskubide hori mugatuta egon daiteke datu edo agiri horiei aplikatzen zaien legeriaren bidez. Herritarren adostasuna bitarteko elektronikoak eman eta jaso ahal izango da”.

Gure iritziz gizarte langileek lege hori erabili nahi dute lege gaitzaile moduan, 30/1992 Legearen 35 f) artikulua mugatu egiten duelako dokumentua ez aurkezteko eskubidea; izan ere, administrazio jardulearen esku daudenean bakarrik onartzen baitu ez aurkezte hori, eta ez du onartzen beste administrazio baten esku daudenean.

11/2007 Legearen 6.2 b) artikulua dela eta, esan behar dugu Datuak Babesteko Espainiako Agentziak aurreko irizpen batzuetan ere interpretatu duela, eta guztietan argi adierazi du halakoetan **titularren adostasuna** behar dela datu transmisioa legezkota izateko.

Administrazioak lehendik dituen datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea bide telematikorekin lotuta dago, eta hala dela xedatzen du berariaz lehen aipatu dugun



11/2007 Legearen 6.2 b) artikulua. 11/2007 Legearen 6.2 b) artikulua xedatutakoa osatzen du lege bereko 9. artikulua:

“9. artikulua. Administrazio publikoen arteko datu lagatzea

1. Lege honetako 6.2 b) artikuluan aitortutako eskubidea eraginkortasunez erabiltzeko, interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetarako irispidea eman behar die administrazio bakoitzak gainerako administrazioei, datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztuz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzeko araudiak xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Datu hauek baizik ez dira eskainiko aurreko paragrafoan aipatutako eran: gainerako administrazioek beren eskumeneko prozedurak eta jarduerak dagozkien arauen arabera izapidetzeko eta ebazteko herritarrei eskatzen dizkietenak. Datu pertsonaletarako irispidea izateko, gainera, lege honetako 6.2 b) artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira”.

9. artikulua ez du datu pertsonalak tratatzeko lege gaikuntzarik ematen. Egiten duena da administrazio publikoei betebeharrak ezarri, legeak herritarrei aitortzen dien datu edo dokumentuak ez aurkezteko eskubidea gauzatu daitekeela bermatzeko.

Edozelan ere, behin eta berriz esatea komeni da 11/2007 Legeak herritarren eskubide bat aitortzen duela eta ez betebeharrak. Beraz, ezin da baztertu herritarren egiaztatu behar izatea betekizuna.

Baina, herritarrek datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideak ez du zer ikusirik administrazio prozedura bat izapidetzeko, prozeduran parte hartzen duten herritarren **datuak egiaztatze**ko administrazioak **duen aukerarekin**.

Hala ere, herritarren datuak egiaztatze, interesdunaren adostasunik gabe, lege izaera duen arau batek eman beharko du baimena (lege orokorra edo berezia izan daiteke).

Auzitegi Gorenaren 2010eko uztailaren 15eko Epaiak aitortu zuen lege batek baino ezin zituela halako datu tratamenduak legitimatu, eta horretarako, baliogabetu egin zuen DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 11. artikulua. Artikulu horrek *“Administrazio publikoei egindako eskaeretako datuak egiaztatzea”* izenburua zuen eta zera xedatzen zuen: *“Baliabide elektronikoen bidez eskaerak egin, eta interesatuek dagoeneko administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaerako datuak jasoko dituen organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak egiazkoak direla egiaztatze”*.

Auzitegi Gorenak baliogabetzat jo zuen artikulua ez zetorrelako bat DBLOren 6., 11. eta 21. artikuluekin eta 11/2007 Legearen 6.2b) eta 9. artikuluekin. Eta baliogabetzeko arrazoiak izan zen erregelamendu izaerako arau batek ezin zituela legitimatu datu pertsonalen adostasunik gabeko tratamenduak egitea.

Datu lagatzea gaitzen duten lege manuak ikusi eta gero, bakar-bakarrik geratzen zaigu esateko, kontsulta egin digun administrazioak berak balioztatu beharko duela kasuz kasu noiz dagoen behar beste lege gaikuntza, irizpenean adierazi ditugun irizpideak aintzat hartuta.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 27a